

2005eko abenduaren 22a • XXV. urtea



Xorroxin Irratia
25 urte orroka

03

Eskualdeko 41 musika talderen abestiak biltzen ditu «Xorroxin Irratia 25 urte orroka» diskak. Punktetik hasi eta trikitixara bitarte, denetarik aditzen ahal da.



Olaizola II.ak lau
terdian hirugarrena

37

Aimar Olaizola goizuetarrak lau terdiko hirugarren txapela lortu zuen abenduaren 11n. Finalean, uste baino errazago, 22-5 irabazi zion Xalari.

04

BURMUIN ELBARRIENTZAT ERRESIDENTZIA

**Gobernuaren hitzarmenaren zain,
dena prest dute sartzeko**



- SUKALDEAK
- LOGELAK
- MAHAI ETA AULKIAK
- KOLTXOIAK
- LORATEGIKO MOBLEAK
- ANTIGUALEKO MOBLEAK
- KONPLEMENTUAK



MOBEL - KASA

ALTZARIAK

- Urtebeteko epea zure erosketak ordaintzeko, kargurik gabe.

Proiektu pertsonalizatuak

- 2500 m² ko erakusketa.
- Aparkaleku pribatua eta haurrentzako toki librea.



betiko kalitatea
gaur egungo diseinuekin



N-1 errep. • 472 km
Iruñ eta Carrefour (lehen Pryca)
tarteko bidean

20100 LEZO (Gipuzkoa)
Tel. 943 26 11 95 • Fax 943 26 11 96
e-mail: indar-arretxea@terra.es
www.mobel-kasa.com



DATUAK...

- «Xorroxin Irratia: 25 urte orroka» izeneko diska karrikaratu du Xorroxinek, Baztandarren Biltzarren laguntzarekin.
- 25 urteotan Baztan-Bidasoaldean izan ditugun 41 musika talderen kantak bildu dira: «Denak ezin sartu, baina gehienak hor daude».
- Inguruan zabaldu nahi dute diska, 10 euroan: «Batzuendako oroitzapena pizteko bidea izanen da eta bertzeentzat izandakoa ezagutzeko diska» .

Josetxo APEZETXEA *Xorroxin Irratikoa*

ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA

ELKARRIZKETA

«Musika taldeek arlo guziak landu dituzte eskualdean eta hori bildu dugu»

Aitor AROTZENA

25 urteotan Baztan-Bidasoaldean musika landu duten berrogeita bat talde diska batean biltzea ez da lan erreza izanen...

Duela bi urte hasi zen Joseba Otondo lehen lanak biltzen eta orai akitu dugu. Talde berrienen masterrak hor daude txukun-txukun, baina hamar taldek espreski diska honetarako grabatu dituzte beraien kantuak, ez baitzuten deus. Batzuk berriz elkartu behar izan dute, Elizondoko Alkolerria adibidez. Grabaketak egiteko, Elbeteko Mikel eta Kandiren prestutasuna azpimarratu behar da batez ere, lan izugarria egin dute, baita Berako Maikelena ere.

Aunitzentzat ezezagunak diren taldeak ere hor izanen dira...

Talderik zaharrena «*El grupo que toca en Mugaire y llueve*» izanen da, duela 23 bat urte Oronozko institutuko irakasle gazteek eta ikasleek egindako taldea. Kronologikoki ongi sailkatzeko lanak izan ditugu eta seguruenik ez dira behar bezala sartu izanen. Arront zaila da. Epe laburrean hainbete talde sortu ziren. Talderik

«Lan aunitz egin behar izan genuen kontzertuak antolatzen, baina jendea hurbiltzen delarik lana gogotik egiten da. Jendea hurbiltzen ez denean, orduan lana zama bihurtzen da»

berrienei dagokienez, Gaizka Sarasolaren «Ixuriak» edo Joseba Irazokiren azkenaurreko lanetik kantu bana bildu ditugu.

Beraz, rock edo punketik hasi eta musika esperimental edo pop ukituko taldeak ere aurki daitezke diskan... Musika izan duen bilakera ageri da nolabait diskan?

25 urte hauetan inguru honetan musika arloan egin den lana agertu nahi izan dugu, eta horrek, denetarik biltzea erran nahi du: erromeria edo plaza taldeak daude, Jalisko Band erraterako; bertze muturrera joanez, esperimentazioaren bidetik Berako zenbait proiektu aurkituko ditugu, rock munduarekin zerikusi gutti daukatena. Zioren, Pottoka, Lesakan Kanakaren garaikidea baina hain ezagu-

na izan ez zen Idrisko Aulkiak, Malekako Saiak, azken aldiko Ameba, More, Ufestuek... Punk, hardcore, heavy, pop edo trikitixa, denetarik izan dugu eta denetarik bildu dugu.

Zenbait talde adituta, Xorroxinek Erratzun antolatzen zituen kontzertuak gogoratuko dituzte aunitzek...

Garai izugarriak izan ziren haiek, jendea leku guzietarik mugitzen zen autobusean. Lehen kontzertuan, duela 20 bat urte, La Polla eta Barricada ekarri genituen; bigarrean Zarama eta Hertzainak, hurrengoan Itoiz: hiru asteburu segidan talde historikak. Gaur egun pentsaezina da hori! Lan aunitz egin behar izan genuen, baina jendea hurbiltzen delarik lana gogotik egiten da. Gero urte ilunagoak heldu ziren, kontzertuetara jende gutiago hurbiltzen zen eta orduan lana zama da. Horrela, kontzertuak antolatzeari utzi genion. Horrek ez du erran nahi orai talde gutiago daudenik. Lehen hamar talde zeuden eta horiek sekulako jendetza mugiarazten zuten. Gaur egun, musika mugimendu handiagoa da, baina jendea nekez mugitzen da kontzertuetara.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Uxaneko ikasle eta monitorea, Maddi egotetxearen aitzinean. Sartzeko irrikitan daude guziak.

BURMUIN ELBARRIENDA KO ERRESIDENTZIA EGINA DAGO BERAN

Gobernuarekin hitzarmena sinatu zain sartzeko prest dago Maddi egotetxea

XXI. mendean sartzeko, bi proiektu haundiri ekin nahi izan zioten Berako Uxanekoek, ASPACE, Bortzirietako udalen eta Ongizate Departamentuaren laguntzarekin. Alde batetik, Enplegu Zentru Berezia ireki zuten Lesakan eta 2002. urtetik lanean ari dira. Bertetik, Beran erresidentzia moldatzeko egitasmoa aurkeztu zuten. Hamasei lagunendako egoitza eskainiko duen egotetxe hori sartzeko prest da dagoeneko. Berako Osasun Zentroaren gaineko bi pisuak moldatuak daude, baina zerbitzua eskaintzeko Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatzea falta da. Beraz, diru kontuak argitzen diren bitartean, txukun-txukun jarria eta ezinduentzako erosotasun guziak prest dituen Maddi egotetxean ezin sartuz daude premia larria duten hainbat pertsona.

Aitor AROTZENA

Isabel Pardo arduradunak aipatu digunez, Iruñean afera mugitzen ari da, Nafarroako Gobernuarekin hi-

tzarmena sinatzeko paperak prestatzen ari dira, «baina gauzak luzatzen ari dira eta ez daukagu abudo irekiko den itxaropenik emanen ligukeen eran-

tzunik jaso oraindik». Isabelen erranetan, zazpi lagun berehala sartu beharko lirakekeen Maddi egotetxean, premia handia dutelako eta etxean behar bezala ezin dituztelako kontu. Gauzak honela, eta Iruñetik erantzunik jasotzen ez duten bitartean, erresidentzia nola edo hala behin behinekoz irekitzeko eta lanean hasteko, jendearen elkartasuna eskatzea edo Fundazioren bat sortu nahizik dabil-tza Uxanen.

«HASIERAKO AURREKONTUA IA BIKOIZTU EGIN DA»

Erresidentziaren hasierako aurrekontua 33 milioi pezetakoa zen, gaur eguneko kasik 200.000 euro. Erdia ASpacek ordaindu behar zuen eta bertze erdia Bortzirietako udalek. Aurrekontu hori kasik bikoiztu egin da lana

burutu orduko, Isabel Pardok onartu duenez: «*Etxe baten zaharbertzeaz ari gara, eta denborarekin nahitaez egin beharreko lanak agertu dira. Gauzak gusto onarekin jarriak daude, baina merkeenak dira. Hala ere, gastua haunditzen joan da eta inork ezin izan du hori gelditu, beharrezko gauzak zirelako*».

PERTSONA BATEN APORTAZIO EKONOMIKO ESKU ZABALA

Gainera, aipatutako erakunde horiez gain, 84.000 euro (14 milioi Pta.) jarri dituen ongile partikular bat ere izan dute, Etxalarko Patxi Barandiaran "Exkutu". Bere emazte zen Maddi Txoperenaren omeneginekin nahi izan du ekarpen hori eta honela, Maddi egotetxea izena jarri diote erresidentziari. «*Ipui-netako kontua dirudi* –erran digu Isabel Pardok– *baina egitan horrela izan da: aitzinaldeko urbanizazioa berak ordaindu du, zolaberritzea, bankuak, loreak... Barneko moble eta etxe tresna guztiak berak jarri ditu, maindireak, onena berezita gainera, izugarria izan da bere esku zabaltasuna! Frigorifikoan janaria izan ezik, hasteko behar den gainerako guztia daukagu!*».

Maddi egotetxera Berako Osasun Zentroaren ondoan dagoen aterpe batetik sartzen da. Bertan dago harrera gela eta Osasun Zentroaren gainean dauden bi solairuetara igotzeko igogailua eta eskaileak. Solairu bakoitzean lau logela bikoitz daude, ohatze batzuk artikulatuak dira, komunak ere ezintasuna dutenentzako bereziak, egongela telebistarekin eta jangela ere badute. Uxaneko ikasleek "hotela" deitzen diote erresidentziari eta sartzeko irrikitan daude.

UXANE ZENTROA: 1977. URTETIK LANEAN BERAN



Uxaneko ikasleak, Maddi erresidentziako egongela dotorean.

Uxanek kasik 30 urte daramazki lanean Beran burmuin elbarritasuna eta bertzelako arazoak dituzten jendeari zerbitzua eskaintzen. 1977an hasi ziren, lehenbiziko Gipuzkoako Aspacerekin eta berehala, 1978an, Nafarroako Aspacerekin. Lehenbizi hezkuntza bereziko zentroa izan zen eta arazoak zituzten haur txikien heziketan aritzen ziren. Baina ikasle hauek ikastetxe arruntetan integratzeko legea egin zen 1989-90 ikasturtean. Orduan ttikiak eskola publikoetara pasatu ziren eta Uxane okupazio zentro bihurtu zen. Gaur egun hamazazpi lagun ari dira okupazio zentro honetan. Batez ere, Berako Alco eta Iruñeko Delphi enpresetarako piezak egiten dituzte tailerlean. Baina horretaz gain astean behin fisioterapeutaren bisita jasotzen dute, gimnasia egitera joaten dira, antzeslana prestatzen dute... Aurten hamar egunez Tenerifen ere izan dira.

Isabel Pardo eta Mila Bidegain dira

pertsona hauen arduradunak. Nuria Garate iruritarra ere egun erdiz aritzen da eta asteburuetan aisialdiko ateraldiak antolatzen ditu.

Erresidentziarekin batera, Uxanek azken aldian landu duen bertze proiektua, Lesakako Enplegu Zentro Bereziak hiru urte daramazki lanean. Orain arteko lana ona izan dela aipatu digu Isabel Pardok, baina lan egoera ez omen da nahi bezain ona: «*Industria-rako lanak hagitz gaizki daude, eta azken urte honetan erregulazio-espeditate batekin daude*». Zentroan hamar lagun ari dira, Delphi automozio enpresarako piezak eta elurretako kateak egiten eta koltxoien fundak prestatzen. Horretaz gain, Berako karriketako garbiketa eta lorezaintza lanak eta Lesakako karriketako garbiketa lanak egiten dituzte, lehiaketa irabazi ondotik. «*Bortziritako udalek laguntza handia eskaini digute beti, baita erresidentziarekin ere. Hagitz eskertuak gaudu*».

Isabel PARDO Uxane Zentruko arduraduna

"Bertzeen menpe ez izateko leku egokian dago egotetxea"

Burmuin elbarriandako erresidentzia hau irekitzeko premia handia al da?

Denak zahartzen ari gara, guk ditugun pertsonen gurasoak ere zahartzen ari dira eta beraien falta direnean, zer gertatuko zaie? Familia batzuk atentitzen ahal dituzte, baina bertze batzuk ez. Etorbizunetan beraien seme-alabak leku ezagun eta egoki batean geldituko direla jakitea lasaitasun

handia da gurasoendako. Beraien etorkizunerako premia handi bat betetzea da. Zazpi lagun berehala sartu beharko liriateke.

Alde horretatik, Maddi erresidentziaren kokapena ezin hobea da...

Bai, erresidentzia leku paregabean dago, herri erdi-erdian, osasun zentroaren gainean, denda eta bertzelako zerbitzu guztiak eskura dauden lekuan.

Hasieratik horrela izan behar zuela pentsatzen genuen, baliabide guztiak eskura izan behar dituzte, independente izateko aukera duten lekuan, denda batean erosketak egiteko... Erabakitze eta egiteko beraien ahalmena lantzeko modu egokia da, beti bertze norbaiten menpe egon beharrik gabe.

Beraz, ez sartzeko arrazoi bakarra ekonomikoa da.

Bai, Nafarroako Gobernuarekin kontzertua sinatu orduko sartuko gara. Bien bitartean zerbait egin beharko dugu!

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.info

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena,

Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio

Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Do-

losor, Margari Etxenike, Koro Irazoki,

Juan Carlos Mortalena, Laetitia, San-

drine eta Krispin, Angela eta Xamo,

Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Jo-

seba Olagarai, Nerea Mitxelorena,

Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ain-

hoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Ami-

go, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Bera, Lei-

tza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpere-

ko udalak, Zugarramurdiko Akelarre

elkartea, Bortziriako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	28 €
Espainia	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	23 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Baserritar jantziak

Tantirumairu Dantza Taldeak aurten 25 urte beteko ditu. Horren aitzakian, Baserritar jantzien erakusketa eta hitzaldia antolatu genuen. Egun gutti barru, gu ere gure jantzi horiekin aterako gara kalera. Hori dela eta, nahi gabe egiten ditugun akatsa batzuk zuzentzen lagundu nahian, hor bortz aholku:

- 1.- Gona alde batean goituta ez eraman. Gure antzinakoek ez zuten gonazpikoa erakusten, azken finean, beraien barruko arropak ziren(gonazpikoa eta pololoak).
- 2.- Gonazpikoa ez da gona baina luzeagoa izan behar. Ez da behetik ikusi behar.
- 3.- Ilea ongi bildua edo painulua-rekin eraman.
- 4.- Oinean ezpartzinak edo abarkak jantzi.
- 5.-Ahal bada, belarritako handi eta luzeak, erlojuak, lepokoak...kendu. Aunitzentzako txorradak izanen

direla badakit, asmatutako gauzak. Nahi duenak ulertuko du, nahi duenak paso egingen du.

Bukatzeko kuriositate bat, tela beltza puntu zuriekin uda pasatzera etorritako madrildarrek

utzitako ondarea da, ez da euskaldunena. Baina beno, hori berze baterako utziko dugu.

Alaitz Rekondo Ferrero

Tantirumairu Euskal

Folklore taldea. Lesaka.

Lagun artera inguratzean

Errekaldeko barrara

Eguzki izpi batez argitzen

delarik Santa Barbara

Dios te salveko koplak kantatzen

hanka sartuz beharbada

irri xalo bat heltzen delarik

gure belarrietara

hori gertatzen den bakoitzean

zutaz oroituko gara.

Besarkada haundi bat zuretzat eta zure familiarendako

LAGUNAK



Aintzat har ezazu euskararekin konpromisoa hartzen duena!

z o z k e t a

Abenduaren 15ean, 12:00etan, Arantzako Herriko Etxean eta udal idazkariaren aitzinean, zozketatu ziren saritu beharreko hiru zenbakiak. Hona emaitzak:

1. MP3 bat. Sanyo 128 Mb, irratiarekin eta bozgorailuekin Bortziriak S. L.-k emana:

00.085 zkia Ekilur Inprimategiak banatua

2. Afari bat bi lagunentzako, Etxalarko Ostatuak emana:

11.067 zkia Labiaga Ikastolak banatua

3. Masaje oso bat eta **aurpegiko tratamendu bat** Kuluxka estetika zentroak emana:

10.152 zkia Ostargi Optikak banatua

Sustatzaileak:



Babesleak:



betiko
P.V.C eta aluminio aroztegia

Ordoki Industrialdea, 31713 Arizkun (Nafarroa)
Tfnoa: 948 453 259 - Faxa: 948 453 423
e-posta: betikopvc@teletel.es

Estalpe Etxiak



Betikon era guztietako itxierak egiten ditugu kolore desberdinetan:
haritza
piñua
kaoba

Pertsianak



**Fabrikanteak
garenez
preziorik
onenak
eskaintzen
ditugu**

Leihoak eta kontraleihoak



Kolorezko kontraleihoak



**PVC eta ALUMINIOarekin
lan egiten dugu**



**ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE • 948 453 259 telefonoan
edo bisitatu gure erakusketa**

SINDIKATUAK

Patxi Altxu Baztan-Bidasoako UGTko idazkari nagusi izendatu dute berriz ere

Langileendako formakuntza ikastaroak eskaintzen dituen sindikatu bakarra dela erran dute

ttipi-ttapa

Baztan-Bidasoako UGTk bigarren batzarra egin zuen azaroaren 26an Beran. Eskualdeko 20 delegatu eta kargudun bildu ziren, sindikatuak eskualdean dituen 370 afiliatuen izenean. Batzar honetan, zuzendaritza batzorde berria aukeratu zen, delegatuen %93,3aren onespenez. Honekin, Patxi Altxu iturandarra izendatu dute berriz ere idazkari nagusi kargurako. Joaquin Bengoetxea izanen da Antolaketa idazkaria eta eskualdeko hiru idazkari izendatu ziren: Sonia Andresena, Laureano Calvo eta Joseba Andoni Muro.

Duela urte terdi egin zen Baztan-Bidasoako UGT osatzeko Kongre-



UTZITAKO ARGAZKIA

UGTko Zuzendaritza Batzorde berria. Ezker-eskuin: Joseba Andoni Muro, Joaquin Bengoetxea, Patxi Altxu, Sonia Andresena eta Laureano Calvo.

sua. Alde horretatik, Patxi Altxuk gogorarazi zuenez, «Aceraliako langile kopuru handi bat UGTn sartu ondorekin, 3 delegatu eta 94 afi-

liatu izatetik, 17 delegatu eta 346 afiliatu izatera pasatu ginen. Geroztik, sindikatu gehiago hazi da».

Berako egoitza ireki-

tzearen eta informazio-lana egitearen garrantzia ere goraipatu zuen idazkari nagusiak: «Eskualdean langileendako formakuntza ikasta-

roak eskaintzen dituen sindikatu bakarra gara. Urtea akitzean 170 lagun pasatu izanen dira ikastaro horietatik».

UGTko kongresuan presazko hiru mozio ere onartu ziren. Lehena, eskola publikoaren defentsan inbertsio gehiago eskatuz; bigarrena, N-121A errepidearen inguruan Nafarroako gobernuaren ardura falta salatuz eta hitz emandako lanak lehenbailehen hastea eskatuz, eta hirugarrena, eskualdean lur industrialaren beharra azpimarratuz, enpresa berriak ezarri ahal izateko. Gisa honetara, Baztan-Bidasoan lanpostu kopurua handitu eta garapen ekonomiko eta soziala sendotuko litzateke UGT sindikatuaren ustez.

Alberto RETEGI
Alzate, 17 BERA • 948 630 763
abokatua

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

SAIONE - GOZOTEGIA
Alzate, 19 • 948630786 • BERA

UPN-CDN-rekin
osasungintza **lur jota**, hezkuntza **lur jota**, zerbitzu sozialak **lur jota**, ... eta bitartean etxebizitza **zerutan!**

Nafarroan, Zerbitzu Publikoak herren **ESKUINAREN ERRUZ**

Defenda ditragun Zerbitzu Publikoak **EZKERRETIK SENDO!**

bestelako Nafarroa
LOR DEZAKEGU, BEHAR DUGU!

BERA

Urtea agurtzeko ohiko ospakizunak izanen dira herrian

Ikastetxetako haurrak karriz karriz ibiliko dira larunbatean

Amaia eta Ainhoa

Eguberriak ailetu dira dagoeneko eta sasoiari dagozkion ospakizun bereziak izanen ditugu herrian. Abenduaren 24ean Olentzero egunarekin, ikastetxetako haurrak karriz karriz ibiliko dira arratsaldeko 15:30etatik aintzina eta ondoren haurrak Hator, hator eta Olentzero abesteko, Berako Plazan elkartuko dira 17:00etan. Eguraldi txarra bada Eztegarra Pilotalekuan kantatuko dute. Helduen kasuan, hauek ere, beti bezala Gure Txokoan elkartu, plazan abestu eta ondoren herriko karriketaren barna ibiliko dira. Urteko azken eguna berezia izaten da ere, haurrek Glin-Glan abestuz goxokiak eta dirua bilduko dute herrian barna eta gazte eta heldu-xeagoek Diostesalbea kantatuko dute. Gabonei abenduaren 5eko Errege Kabalgatarekin aia erranen diegu beratarrok.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kenpo-Kai erakustaldia eta txapelketa kiroldegian

Abenduaren 11n Kenpo-kai arte martzialaren erakustaldia egin eta txapelketa jokatu zen Toki-Ona kiroldegian. Berako taldetik aparte, Oiartzun, Irun, Angelu eta Madriletik etorritako berrehun bat partaide izan ziren erakustaldia ematen eta txapelketan parte hartzen. Beran 24 heldu eta 10 haur ari dira Kenpo-kai ikastaroa egiten Juan Mari Vidal irakaslearekin.

Toki Ona Institutua Soustenergy proiektuan

Toki Ona Institutua klima aldaketari aurre egin nahian, Nafarroako bertze hiru ikastetxeekin batera European abian jarri den Soustenergy proiektuan parte hartzen ari da. Zehaz-

ki, aldaketa klimatikoari aurre egiteko ekimena da eta ikastetxeetako energia planak izeneko atala lantzen ari dira. Toki Onan Energia Batzordea osatu dute eta irakasle batzuk ere formazio seminarioak egiten ari dira proiektua aintzina eramateko. Batzorde honek aben-

duaren 7an burutu zituen lehendabiziko ekintzak, Energia Egunean. Egun honetan hainbat tailer, kontsumo neurketa, hormirudiak, etab. egin zituen. Ekitaldi gehiago egingen dira honen inguruan eta Energia txokoak ere jarri dituzte institutuan egindako lanak zabaltzeko.

FLASH

Mikelperizena txapelkun eta Zubietaren azpitxapelkun Uharten

Uharteko lau terdiko pilota txapelketan Javier Mikelperizena suertatu da txapelkun Iban Zubietaren aurka finala jokatu ondok. Partidu gogorra izan zen, batez ere hasieran, baina azkenean Mikelperizenak aintzina hartu zion Zubietari 22-13 emaitzarekin akautuz. Javier sekulako denboraldia egiten ari da eta jokatu dituen azken txapelketa guztiak irabazi ditu. Joan den urtean ere Mikelperizenak Nafarroako lau terdiko txapelketa garrantzitsuena, Uhartekoa, irabazi zuen. 2003an, aldiz, Iban Zubietak eraman zuen txapela.

Memoriaren Parkearentzako laguntza

Udalak Fusilatuen Senideen Elkarteak bidalitako "Memoriaren Parkea"-ri buruzko mozioa onartu du aho batez. Gainera, 1936ko kolpe militarren ondorioz sortutako Nafarroako Fusilatuen Senide eta Alargunen Elkarteak bultzatzen duen Memoriaren Parkea eraikitzeko 500 euroko laguntza emanen du.

Artieda M.
Lentzeria - Mertzzeria
Eguberri eta urteberri on!
Kanttonberri, 2 • BERA • 948 625 411

D
Eguzki panelak • Iturgintza 630 441 315
Industria mantenimendua • 628 015 933
Aire egokitas •
Elektrizitates • 606 980 440
Zalain Industrialeko 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)
Fax: 948 625 332 • email: artizalain@terra.es

ZJ
Zalain
jatetxea
Hostala
14 logela,
bainu eta TBrekin
C/ Zubietari 1 • Tel: 948 625 411
Bera - Nafarroa

LESAKA

Elikadurari buruzko 3. jardunaldiak egingen dira abenduaren 21ean

Nerabe eta haurren loditasunari buruz arituko da Oria doktorea

Aitor AROTZENA

Bortzirietako elikadurari buruzko hirugarren jardunaldiak egingen dira abenduaren 21ean, asteazkenean. Lesakako Osasun Etxeak eta Elaia elkarteak antolatu dituzte jardunaldiak, Osasunbidea (Hezkuntza) eta Lesakako Udala, Euskadiko Kutxa, nafarroako Kutxa eta La Caixaren laguntzarekin.

Asteazken arratsaldean egingen dira ekitaldi guztiak. 13:30etatik 15:00etara osasun langileendako irakaskuntza saioa egingen da Lesakako Osasun Etxean. Oria doktorea, nerabe eta haurren arteko loditasunaren prebentzio eta erabilerari buruz arituko da. Gai bera landuko du Oria doktoreak Kasinoan 16:30etatik 18:00etara, nahi duen guztiarentzat irekia egonen den saioan.

18:30etan eskolajantokiekin harremana duten langileen topaketa egingen da. Dietistik emandako aholkuen



UTZITAKO ARGAZKIA

Irain eskolako hirugarren ziklokoko 22 ikasle eta Idoia Ajona eta Edurne Aranburu irakasleak Kantabrian izan ziren urriaren 30etik azaroaren 5era. 11 eta 12 urteko ikasle hauek Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik ingeleseko beka eskuratu zuten ekainean eta hori baliatuz egin dute asetebeke ateraldia. Cabarcenoko aterpean izan dira, Madrileko bertze ikas-etxe bateko ikasleekin batera. Goizez lau orduz ingelesa ematen zuten eta bi orduz ingurumenarekin lotutako gaiak, beti ere ingelesez. Arratsaldez joakoak egingen zituzten, beti ere ingelesa landuz.

arabera, ohiko sukaldaritza eta menu egitearen ikastaroa antolatu da.

Olentzero solasgai
Eguberri garaian mur-

gilduta, Olentzero pertsonaiaren jatorria eza-gutzeko aski solasaldi interesgarriak eman dira Herriko Etxean, Udalak eta Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailak an-

tolatuta. Hainbat aditu aritu dira olentzerori buruz. Tartean, Rafael Eneterreaga herritarra Lesakako Olentzeroren tradizioari buruz arituzten larunbatean.

FLASH

Sokatira taldea launakakoan txapeldun eta azpitxapeldun

Aurten lehen aldiz parte hartu du Beti Gazte sokatira taldeak Euskadiko goma gaineko launakako txapelketan. Lau tiralari aritzen dira elkarren kontra modalitate honetan. Lesakarrek bi talde ateratu zituzten 300 kiloz beheitiko kategorian eta bertze bat 280 kilokoan. Abenduaren 3an, 300 kiloko finala jokatu zen Arrigorriagan eta Beti Gazte A txapeldun suertatu zen eta Beti Gazte B hirugarren. 280 kiloko finala abenduaren 11n jokatu zen Laukizen eta Beti Gazte bigarren izan zen Abadiñoren gibeletik. Urtarrean zortzinakako txapelketa hasiko da eta tiralariak gogor prestatzen ari dira.

Olentzero eta jaiotza lehiaketa

Larunbat eguerdi honetan, abenduaren 24an, egingen dira plazan ohiko jaiotza eta olentzero lehiaketak. Lehenik jaiotzak izanen dira eta gero, olentzeroak, hiru kategoriatan banatuak: 10 urteko haurrak, 11 eta 15 urte artekoak eta 16 urtetik goitikoak. Beti bezala, olentzero irabazlea musika bandarekin aterako da arratsaldez.

BOBEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
Tfnoa: 948 637826

BOZZAID
Bortzirietako 3. jardunaldia
2005/12/22

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako altzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

Toailak-Mantelariak-Oheko mandriak
Eskolako haurren mantelak etab...
bordatzan ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu
Etxeri Plz. Berriz 4-ra eta ikur hartako eskolara!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

ETXALAR

Lau lagun omendu ditu Larraburua Jubilatuko Elkarteak laurogei urte betetzeagatik

Larunbatean eginen da urteroko herri-buelta Olentzerorekin

Joseba eta Nerea

Etxetik kanpora ateratzea bertzerik ez dago Eguberrietan gaudela sumatzeko. Arbolletako argiek eta Udalletzeko balkoiak garbi erraten digute Eguberriak gainean ditugula. Batzuk gustoko dituzte egun hauek. Bertze batzuk berriz, noiz akabatu tuko esperoan egoten dira. Hala ere, gustuak gustu, aurten ere urteroko ekitaldi berdinak errepikatuko dira datozen asteetan. Larunbat honetan Olentzerori ongietorria eginen zaio ilunabarreko mezaren ondotik. Oroitu, joan den urtean bezala, aurten ere 18:00etan izanen dela meza. Ondotik, herrian barna buelta emanen da Olentzerorekin batera, herriko txistulari eta trikitilariak lagun-duta. Akabatzeko, berendua izanen da Elutsa ostatuan. Abenduaren 31an berriz, Ela-ela eskean ibiliko dira herriko haurrak. Urte zaharra akabatu eta be-



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Eugenio, Elisa, Leon eta Prudentzio, oroigarriak hartu ondotik.

riari ongietorria eginen diote etxez etxe eta baserriz-baserriz.

Omenaldia 80 urtekoei

Urtero bezala, 80 urte bete dituzten etxalartarrak omendi ditu Larraburua jubilatuko elkarteak. Ohitura segituz, Xabierko San Frantzisko eguna aukeratu zuten omenduei besta tiki bat antolatzeko. Mezarekin hasi zuten egu-

na. Aurten hil diren bazkideak oroitu eta euren aldeko elizkizuna egin zuten. Ondotik, Larraburua elkartearen bilduren bazkari ederraren bueltan. 65 bat lagun elkartzu ziren denetara. 16:00ak aldera omenaldi-besta hasi zuten. Hauek izan ziren aurten omendutakoak: Anai Etxeko Eugenio Santesteban, Larrabetako Leon Goienetxe, Maie-neako Elisa Indaburu

eta Etxeberriko Borda-ko Prudentzio Arburua. Lore sortak eta plakak hartu zituzten oroigarri-gisa eguneko lau protagonistek. Besta ongi akabatzeko, Ramontxo akordeoilariarekin dantzaldia izan zuten. Animateen berandurarte ibili ziren dantzan eta gainerakoak lasai ederran jarrita pasatu zituzten orduak elkarrekin solasean. Giro eder-rrak ez zuen hutsik egin.

Lerro hauen bidez ere hartu gure zorionik beroenak Eugenio, Leon, Elisa eta Prudentzio!

Herriko pilotariak emaitza onak Bortzirietako txapelketan

Aldalurko Beñat Maia eta Izargiko Aitor Danboriena txapelkun izan ziren joan den azaroaren 27an Bortzirietako V. eskuz binakako Pilota Txapelketan. Arantzan jokatu ziren txapelketa honetako kategoria desberdinetako finalak eta herriko bi pilotari gazteak irabazle izan ziren kimuak B mailan. Beñat eta Aitorrekin batera, Gure Itzala-ko Ibai Gallardon ere arituzen txapelketa honetan, hirukotea osatuz. Finalean jokatu ez bazuen ere, hiruen meritu-ua izan da txapel hau herrira ekartzea. Finala oiartzuarren kontra jokatu zuten eta 18 eta 12 irabazi zieten Aitor eta Beñatek.

HERRIKO
GATATE JATEKIA

Herriko Gataste Jatekia
Etxe - MARMIA

Albiuhortz klinika
Iker Albiu Altolagirre
Odontologia Medikua - Kol. Ziria 449

948 631 631

Iparraidea 3 - 2.ezk 31780 Bera

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Asteain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

ARANTZA

Andoni eta Xabi Taberna anaiak Bortzirietako txapelketan garaile

Azaroaren 27an, zortzi final jokatu ziren frontoian

Nerea ALTZURI

Gain-gainean dugu Olentzero eguna. Larunbat arratsaldean, urteroko ohiturari segituz, baserritarrez jauntzita olentzeroen kantu karrika buelta eginen da. Eskolakoek behintzat, ttikienetik hasi eta zaharrentara, prest ditzute beuren olentzeroak. Kalejiraren ondotik, iluntzearekin batera, berendu goxoa eginez la-kautuko da larunbat arratsaldea.

Igande eguerdian opariak hartu eta plazan kantuak kantatuz, olentzeroak erre eta korruan kalejira dantzatzeko aspaldiko tradizioa segituko da.

Urtero bezala, arrazoi batengatik eta berzearengatik gure artean ez ditugun lagunekin oroitzu, eguberri

eta urteberri on opa ditzuet irakurle denei.

Gazte Asanblada

Igantzi eta Arantza arteko bidegurutzera baino lehen dagoen murala berritzea erabaki du Gazte Asanbladak. Aspaldixkotik, nahikoa hondatua dago, pintura eta marrazkia bera ere desagertuxea dago. Beraz, agudo murala berritua ikusiko da.

Bertzalde, joan den abenduaren 5ean bertso afaria egin zen Ekaitza elkartearen, Xabier Silbeira eta Julen Zelaia-eta bertsolariekin.

Kruz Mari hil da

Urte aunitzez herriko besta eta ospakizunetan, bere kideekin batera txistulari izan zen Kruz Mari. Abenduaren

3an Kruz Mari Bergara Matxikote zendu zen, 81 urterekin. Andresenea etxekoa, nekazaria, herriko alkate izana eta guziaren gainetik herriko txistularia, 1924ko maiatzaren 3an jaio zen. Guda Zibilaren ondotik, Jazinto eta Evaristo anaiekin hasieran eta Martin Ibarrolarekin gero, txistulari taldea osatu zuten, Alfonso Larralde atabalariarekin batera. 90. hamarkadatik txistulari gazteak batzen joan ziren taldera, Alfonsoren semea den Marttin Larralde atabalariarekin batera. 9 urte zeramakin bere ohiko jardunetik erretiratu, gurpildun aukian, tronbosi kolpearen ondorioz eta hasieran aipatu bezala, abenduaren 3an utzi gintuen. Doluminak familiari.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zakuteneko Andoni eta Xabi Taberna Larretxea anaiek txapelketa polita egin dute. Bortzirietako binakako bortzgarren txapelketan, ttikien mailan irabazle izan dira. Azaroaren 27an, herriko frontoian finaleko zortzi partidu jokatu ziren goizean eta Berako Gure Txokoako Harri Maritorea eta Peio Migelena bikotearen kontra irabazi zuen Ekaitzako bikote gaztetxoak 18 eta 8. Zorionak!



UTZITAKO ARGAZKIA

Azaroaren 27an ere, Iturtzenbordako Luis eta Rosario urrezko ezteiak ospatu zituzten familiartean. Aterpen eginiko ospakizunean, mahaian ikusten ditugu biak umore ederrean eta sasoian. Azaroaren 23an, 50 urte ezkondurik bete zituzten. Zorionak bikote eta segi orain bezain zoriontsu!

ARANTZA
Zurgindegia
Calle Miguel Servet 10
Osia autza 948 634 088
ARANTZA

ALBERGIA
JATETXEA
ATERPE
ARANTZA
Tel: 948 634 179

BIZIKLETA TAILERRA
erreplide, mendi, trekking
eta haurrentzako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kanttonberri 1, bis - BERA - Tel-Fax: 948 631 218

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz egiteko laguntzak
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Erenta aitortpenak
- Ebarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarrtasun planak eta aurrekontuak

LESANA: Bittorio, 71 beheko
Tel: 948 637 050
Fax: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantzioko Bentak
© 948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.



Igantzik hiru bikotek lortu zuten Arantzan jokatutako Bortzirietako txapelketaren finalerako sailkatzea: Joseba Bertiz eta Unai Telletxea, Imanol Goienez Beñat Txoperenarekin eta Iker Rojo eta Eneko Telletxea. Partida politik jokatutaz bazi-tuzten ere, azken hauek izan ziren txapela etxera ekartzea lortu zuten bakarrak.



Bizkotxo lehiaketa antolatu du Biltokik Kultur Egunean. 16 bizkotxo dastatu zituzten epaimahaikoez eta argazkiko hirurenak iduritu zitzaizkien hobere-nak: M^a Jesus Telletxe-arena izan zen hirugarrena, M^a Sol Dorronsorena bigarrena eta Olaia Matxikoterena irabazlea. Arratsaldean izan zuen jendeak bizkotxo-ak txokolatearekin probatzeko aukera.

IGANTZI

Sarrola eta Elutsetan barrena izanen da aurten Olentzero-kalejira

laz berreskuratutako lehiaketa izanen da aurten ere

Oskar TXOPERENA

Eguraldi hotza baina ateria izan dugu aurten Kultur Egunean. Kanpoan egin behar-eko ekitaldiak arazorik gabe egiteko aukera izan da. Abenduaren 3an elizan eskainitako kamara kontzertu bikain batekin hasi zen egitaraua eta 8an akautu zen Biltokik antolatzen duen egunarekin. Tarte horretan haurren jokoak, antzeslanak eta ipuin kontalariak izan ditugu. Zerbait aipatu behar izanez gero, azken eguneko erakusketa bikaina prestatzeko egin behar den lanak akaso denbora luzeagoan –egun pare batez gutienez– irekia edukitzea merezi duela. Olentzero lehiaketa prestatzen ari da orain jendea.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Abenduaren 6an egin zuten urte hondarreko besta Baratzondo Elkarte-
an. Argazkian ikusten den bezala, umore ederrez pasatu zuten eguna bertara bildutakoek. Garai honetan jokatzen dira elkarteko mus eta partxis lehiaketak eta egun hau aprobetxatzen dute sariak banatzeko. Txapelketa bakoitzean irabazle suertatu direnak aipatuko ditugu hemen: musean Miguel Dorronsoro eta Jose Javier Urtxegi izan ziren irabazleak, eta partxisean Juan Sein eta Joxe Mari Gaztelumendi.

1951tik *lentzeria-etxea*
Casa Cambra

edredoi nordikoak	toailak
edredoi-azal nordikoak	kuxinak
ohe estalkiak	albornozak
maindireak	mantelak

Zorionak!

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

DONEZTEBE

Mariela Olaizola jostunak jaso du aurten Santa Luzia eguneko Urrezko Titarea

Berrogeita zortzi urte eman ditu modista lanean

ttipi-ttapa

Azken urteetan berreskuratutako ohiturari eutsiz abenduaren 13an Santa Luzia eguna ospatu zen. Gaztelaraz bada errana, Santa Luzia egunarekin gaua laburtu eta eguna luzatzen dela erraten duena, baina gehien bat jostunen eguna ospatzen da. Donezteben, historikoki merkatari, jantzigile eta jostunen herria izanik, gogoz ospatzen da egun hau. Azkeneko urteetan bezala Udala arduratu da antolaketaz, Cederna-Garalur elkarte eta Bertizko Partzuergo Turistikoaren laguntzarekin.

Goizean Malerreka aldeko artisauen lanen erakusketa eta salmenta izan zen elizako atarian. Florentino Ibarrek



Mariela Olaizola jostuna Vicente Maylin senarrarekin, Udalak emandako Urrezko Titarea eta lore-xorta eskuratu ondotik.

larruarekin, Bittoriano Arzuagak artilearekin, Juan Pedro Goñi eta

Santiago Hualdek egurrarekin, Fausti Juanikorenak ehunekin, Da-

niel Fioramantek zerramikarekin eta Malu Alvarezek zilarrarekin

egindako eskulanak ikusgai eta salgai izan ziren.

Meza Nagusiaren ondotik, urtero bezala omenaldia eskaini zitzaion herriko jostun bati. Honela, Udalak Mariela Olaizola Samaniegori eman dio aurtengo Urrezko Titarea. Mariela 15 urterekin hasi zen josten eta 48 eman ditu modista lanean. Gaur egun, 63 urterekin ere lantto batzuk egiten omen ditu, «neretzat barrrik, gustatzen zaidalako». Jostun lanbidea gainbeheran doala onartzen du Mariela Olaizolak: «Donezteben josten genuen emakume guztiak erretiratzeko joan gara eta denda aunitzixten ari dira. Baina hemen bezala, Iruñean eta Donostian ere».

ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

GAZTANDEGIA

LIZUN

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

J.RAMOS

zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditudak

Tfnoa: 948 637 173 LESAKA • SARRA: 437 84023

BAR Botxo OSTATUA

© 948630052 • ZALAIN • BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

SUNBILLA

Eguberrietako ohiko ospakizunak izanen dira abenduaren 24 eta 25ean

Olentzeroren itzulia eta gazteen eskea eginen dira

Jaione O. A.

Abenduaren 24an, bertze hainbat herrietan bezala, Eguberrietako kantak abestuz herrian barna ibilaldia eginen da. 14:30etan hasiko dira Beheko Eskolatik. Itzulia akitzerakoan, berrendua izanen da Ulibeltzak elkartean.

